

Montehermosok zenbait jarduera antolatu ditu Liburuaren Eguna dela eta

Lehenengoa gaur abiatuko da: museo eta arte zentroetako beste 56 liburutegirekin batera *bookcrossing*a egingo da

Joan den asteartean, Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotziak “Liburu egunak” kanpaina aurkeztu zuen, Liburutegien Sareak Liburuaren Eguna (apirilaren 23a) ospatzeko antolatutakoa. Jarduera horietaz eta Liburu Saltzaileen Elkarteak antolatzen duen azokaz gain, Montehermoso kulturuneak ere zenbait jarduera prestatu ditu.

Lehenengoa gaur abiatuko da: kulturuneak beste museo zein arte eta kultura zentro batzuetako 56 liburutegirekin bat egin du, kaleak liburuz betetzeko bederatzigarren *bookcrossing* esperientzian.

Liburuak askatzeko kanpainaren bidez, Montehermosoko liburutegiak dituen ale bikoiztuen multzoko aleak banatuko dira Gasteizen eta beste hiri batzuetan. Liburuak jasotzen dituztenek irakurtzea eta ondoren munduko beste leku batean askatzea da asmoa.

Askatzen diren liburuak dagozkien etiketak eramango dituzte, eta behar diren jarraibideak erantsiko dira irakurleek kanpainan parte hartzerik izan dezaten. Orobat, www.bookcrossing.com/mybookshelf web-orrian erregistratuta egongo dira, ale bakoitza non askatzen den adierazi ahal izateko.

Bestetik, maiatzean lantegiak eta hitzaldiak antolatu dira kulturunean, 19:00etatik aurrera:

- **Maiatzak 4 Lantegia:** “*Gutenbergengandik El Rubiusengana zinearen bitartez*” Zinemaren bilakabidea literaturaren eta sareko komunikazio-kanal berrien arteko uztarri gisa. Cristina Arrázola, Publizitatean lizentziatua eta ikus-entzunezko hizkuntzan eta edizio-teknika digitaletan aditua. 12 urtetik gorakoentzat. Hizkuntza: gaztelania.
- **Maiatzak 11 “Irudi-liburuak familietan”** Irudiez, objektuez, hitzez, kantez, errimez, jolasez eta inprobisazioaz osatutako liburuak. Pello Añorga, ipuin-kontalaria idazlea.
- Adin guztietakoentzat. Hizkuntza: euskara.
- **Maiatzak 18 “Elkartzeak”** Hitza, ilustrazioa eta musika bateratzen dira saio honetan. Felipe Zelaieta, Aroa Arrizubieta, Manu Bendala eta Laura Lobato. Adin guztietakoentzat. Hizkuntza: gaztelania, euskara, frantsesa.
- **Maiatzak 25 Lantegia:** “*Polito idatziko dugu*” Errotuladore pintzeldunez eginiko kaligrafiaren oinarriak aztertuko dira. “Sinbait Creaciones”-en eskutik. 12 urtetik gorakoentzat. Hizkuntza: gaztelania.

Montehermoso organiza diversas actividades con motivo del Día del Libro

La primera de ellas comienza hoy, realizando un bookcrossing junto con otras 56 bibliotecas de museos y centros de arte

El pasado martes en rueda de prensa, la concejala de Cultura, Educación y Deporte presentó la campaña de la Red de Bibliotecas “Días de Libro” con las actividades que se realizarán con motivo del Día del Libro que se celebra el domingo 23. A estas actividades, y a la Feria del Libro del fin de semana que organiza la Asociación de Libreros, hay que añadir las actividades que tiene preparadas el Centro Cultural Montehermoso.

La primera de ellas se celebra hoy, y es que el centro cultural se une a otras 56 bibliotecas de museos y centros de arte y cultura para inundar las calles de libros en la novena experiencia bookcrossing que se realiza.

La campaña de liberación de libros, pretende inundar Vitoria-Gasteiz, entre otras ciudades, con volúmenes procedentes de la bolsa de duplicados de la biblioteca de Montehermoso. La intención es que quienes los recojan, disfruten de su lectura y vuelvan a liberarlos en otro punto distinto del mundo.

Todos los libros liberados estarán acreditados con sus correspondientes etiquetas y contendrán las instrucciones necesarias para facilitar al lector su participación en la campaña y estarán registrados en la página web www.bookcrossing.com/mybookshelf, donde se podrá lindicar el lugar donde liberarán cada ejemplar.

Además, durante el mes de mayo, habrá diferentes talleres y charlas con motivo del Día del Libro, todas ellas a las 19:00 en el Centro Cultural:

- **4 de mayo: Taller: “De Gutenberg a El Rubius, a través del cine”** Evolución del cine como elemento de unión entre la literatura y los nuevos canales de comunicación en red. Cristina Arrázola, licenciada en Publicidad y especializada en lenguaje audiovisual y técnicas de edición digital. Edad a partir de 12 años. Idioma: castellano.
- **11 de mayo “Irudi-liburuak familietan”** Libros de imágenes, objetos, palabras, rimas, juegos e improvisación. Pello Añorga, escritor y cuentacuentos. Para todas las edades. Idioma: euskara.
- **18 de mayo “Encuentros”** Palabra, ilustración y música confluyen en este ensayo. Felipe Zelaieta, Aroa Arrizubieta, Manu Bendala y Laura Lobato. Todas las edades. Idioma: castellano, euskara, francés.

- **25 de mayo Taller: “Vamos a escribir bonito”** Se analizarán las bases de la caligrafía con rotuladores de punta de pincel. Impartido por Sinbait Creaciones. Edad a partir de 12 años. Idioma: castellano.